



PR-A 61




Mendiko ibilbide zirkular honek Igoingo erroitz ezkutua gurutzatu eta Santa Teodosia basiliza ederrera iristen da. Tarte batean, Vasco-Navarro trenbide zaharreko bide berdearekin eta Inaziotar bidearekin bat egiten du.




# Arabako Mendialdeko ibilbide zirkularra

Arabako ibilbide berdeen sarea



Red de Itinerarios Verdes de Álava

PR-A 61



Ibilbidearen jarraipena



Norabide aldaketa



Okerreko norabidea



SARBIDEAK



## TELEFONO INTERESGARRIAK

Santikurutze Kanpezuko turismo bulegoa:

945 405 424

Bide Berdearen interpretazio zentroa eta turismo bulegoa (Antoñana):

945 410 577



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus



KANPEZIKO-ARABAKO MENDIALDEA KUADRILLA  
CUADRILLA DE CAMPEZO-MONTAÑA ALAVESA



Informazioa eta trackak eskuratzeko :  
[www.araba.eus/web/ibilbideberdeensarea](http://www.araba.eus/web/ibilbideberdeensarea)

**0. km ANTOÑANA.** Antoñanako hiribildutik abiatuko gara GR 282 Artzaintza Naturbideari eta GR 120 Inaziotar bideari jarraituz Iparralderantz, Sabando ibaiaren haranetik. Pista eroso bati jarraituz Oteoko gunera iritsiko gara eta Lokizko mendilerroaren mendebaldetik aurrera egingo dugu. A-2128 errepidea arreta handiz gurutzatuko dugu, eta haren paraleloa den bide batek Done Bikendi Haranara hurbilduko gaitu.

**8,3. km DONE BIKENDI HARANA.** Udalerria igaro ondoren GR 120a utziko dugu, eta asfaltatuta dagoen bide batek Santa Teodosiako atsedenekura igotzeko aukera emango digu, hori Entzia eta Iturrietako mendilerroetako sarbideetako bat izanik.

**11. km SANTA TEODOSIA.** Baso trinko bat zeharkatu ondoren, landaredia soildu egingo da eta hurbil dagoen Erroitegiko herrigunea ikusiko dugu. Aurrerantz goazen pista A-3114 errepidean amaituko da, eta errepide hori arreta handiz gurutzatu behar dugu herri txiki horretara iristeko.

**13,6. km ERROITEGI.** Erroetara doan errepidetik jarraituko dugu, GR 282a utziko dugu eta gure ezkerrean dagoen pista batetik desbideratuko gara Musitu ibaiak zulatutako Igoroineko haitzartean sartuz. Haitzartea zeharkatzen dugun bitartean urte-aldian sortzen diren ur-jauziez eta amildegiazen hegala bakoitza estaltzen duten pagadi eta erkameztiez gozatuko dugu. Haranaren hondoan Igoroineko errotarekin topo egingo dugu; errota hori herrixka txiki batean zegoen, baina gaur egun aurriak besterik ez dira geratzen. Musitura hurbilduko gara eta ondoren berriro amildegian sartuko gara. Berehala A-4144 errepidera iritsiko gara, eta Santo Toribio basilizara hurbilduko gaitu.

**20,6. km SANTO TORIBIO.** Basiliza atzean utzi ondoren Vasco-Navarro trenbidearen trazadurarekin topo egingo dugu baina oraindik ez diogu horri jarraituko; lehenik eta behin Aletxa arte desbideratuko gara. Leortzako tunelaren ondoren egingo dugu bat Vasco-Navarroarekin, eta Maezturaino eramango gaitu.

**23,8. km MAEZTU.** Ibilbidearen azken tartean pista eroso batek Vasco-Navarro trenbide zaharraren trazadura zeuden instalazio zaharrak (zubiak, tunelak, geltokiak eta abar) erakutsiko dizkigu; instalazio asko birgaitu egin dituzte. Arabako Foru Aldundiak egokitutako pasabide berriei esker A-132 errepidea eta Berron ibaiaren arroa inolako arriskurik gabe gainditu ahal izango ditugu, gure ibilbidearen amaierara iritsi arte.

**32,3. km ANTOÑANA.** Errepidearen beste aldean zaharberitutako bagoi bitxi bat dago, eskualdeko interpretazio zentroa eta turismo bulegoa biltzen dituena.



## FITXA TEKNIKOA



32,3 Km



950 m



950 m



9h 20'



1



2



2



4

## MIDE

MIDE ibilbideen gogortasun teknikoak zein fisikoak baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.

MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira):



Ingurune naturalaren gogortasuna



Ibilbidean orientatzeko zailtasuna



Desplazamenduaren zailtasuna



Behar den ahalegin maila

## PROFILA

